

ELGOIBAR

EUSKARAREN EZAGUTZA ETA ETXEKO ERABILERARI BURUZKO DATUAK

EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) dagoeneko argitaratu ditu euskararen ezagutza eta erabilerari buruzko datuak.

Azken erroldaren arabera (2001), Elgoibarren 10.615 biztanle daude.

EUSTATEN arabera, eta beti ere 2 urtetik gorako biztanleak kontuan izanik, % 60,9a dira euskaldunak, % 12,86 ia euskaldunak, eta % 26,21, erdaldunak. *(Kontuan izan behar da herri bateko euskaldungoa neurtzerakoan euskaldunen kopuruari "ia euskaldunen" kopuru erdia ere gehitzen zaiola, beraz, Elgoibarren biztanleen %67,33 euskalduna da).*

2 urte eta gehiagoko biztanleria, lurralde-eremuen arabera sailkatuta, euskara maila globalaren arabera (EUSTAT 2001)

	Guztira	Euskaldunak				Ia euskaldunak				Erdaldunak
		Guztira	Alfabetatuak	Erdi alfabetatuak	Alfabetatugabeak	Guztira	Alfabetatuak	Alfabetatugabeak	Pasiboak	
EAE	2.033.247	656.980	527.771	106.433	22.776	470.124	302.487	77.111	95.926	906.143
Gipuzkoa	656.499	337.769	273.989	53.423	10.384	129.183	67.468	30.830	30.885	189.520
Debarrena	53.058	31.933	26.035	4.863	1.035	8.588	4.061	2.307	2.220	12.537
Elgoibar	10.219	6.225	5.506	586	133	1.315	777	304	234	2.679

Elgoibarko biztanleen ama-hizkuntza eta etxeko hizkuntzaren erabilerari dagokionean, honako ondorio hauek atera ditzakegu:

Lehendabizi, **ama-hizkuntzari dagokionez**, biztanleen % 45,91ak euskara dute ama hizkuntza; % 45,97ak gaztelania; % 6,77ak gaztelania eta euskara, biak batera; eta azkenik, 139 (%1,33) biztanlek, ez euskara ez gaztelania ez den beste hizkuntza bat.

Bigarrenik, **etxeko erabilerari dagokionez**, biztanleen % 33.51ak euskaraz hitz egiten dute etxean; % 48,72ak gaztelaniaz; % 17,18ak euskaraz nahiz gaztelaniaz; eta bukatzeko, % 0,57ak beste hizkuntzaren batean.

Biztanleria, lurralde eremuen arabera sailkatuta, ama-hizkuntzaren eta etxean erabiltzen den hizkuntzaren arabera (EUSTAT 2001)

	Guztira	Ama hizkuntza				Etxean erabiltzen den hizkuntza			
		Euskara	Gaztelania	Biak	Beste bat	Euskara	Gaztelania	Biak	Beste bat
EAE	2.082.587	415.623	1.543.259	87.012	36.693	284.084	1.608.666	175.157	14.680
Gipuzkoa	673.563	254.912	366.527	40.765	11.359	182.165	392.847	94.180	4.371
Debarrena	54.228	25.348	23.961	3.498	1.421	16.592	26.859	10.166	611
Elgoibar	10.440	4.794	4.800	707	139	3.499	5.087	1.794	60